

LORE-JOKUAK ETA OLERTI-EGUNA LARREA'N

Garaiz iragarrita egoanez, Larra'ko karmeldarren komentuko Andra Maria'ren iduria koroatzea zala-ta, Lore Jokuak ospatu ziran berton; baita egun orregaz batera urteroko Olerti-eguna be, ba. gillaren 16'an.

Norgeiagoka au euskeraz ta erderaz izan zan, baiña lanik geienak euskeraz izan ziran; guztiz: 20 olerki ta 6 itz lauz. Lanak ikusi ta aztertuteko Batzordea oneik osotzen eben: A. Lino Akesolo, buru; Calle Iturrino, Pagadigorria, Erkiaga ta Al. berto Iza, Zornotza'ko alkatea, batzarkide, ta A. Onaindia, idazkari.

Batzordeak, lan guztiak —euskerazkoak eta erderazkoak— aztertu ondoren, erabagi au emon eben: I. *Olerkitan*. Sarituak: N. Etxaniz'en «Larra'n larrak lorea», Agustin Zubikarai'ren «Koroiko pitxiak», Sabin Muniategi'ren «Larra'ko Amari», Balendin Enbeita'ren «Larra'ko komentua», ta Abel Enbeita'ren «Gizaldi ontan». II. *Itz lauz*: Jaime Barrutia'ren «Zeru arnasa», eta Franzisko Uribarren'en «Kukuak udabarrian» eta «Iretaria gaberdian».

Erderazko sarituak oneik izan ziran: I. *Itz neutrutan*: «Fue una mañana clara», Jose Andres Gomez Andaluz'ena; accesit bi: «Corona de amor», A. Onaindia'rena, ta «Salve Regina», Kepa Derteano'rena. II. *Itz lauz*: «Los cerezos en flor», Franzisko Uribarren'ena; «La poesía, sede de la belleza», Karmelo Barrenetxea'rena, ta «Los montes te cantan», Antonio Biguri'rena.

Sari-banaketa Zornotza zinean egin zan, bagillaren 16'an. Aurretik meza nagusia euki genduan Larrea'n, beste urteetan lez, itzaldi ta guzti. Ondoren, dantzari ta txistulariak aurretik zirala, burdi-dore jantzi baten zazpi neskatilla liraiñakin ziñeratu ta an, kantu ta txalo artean, olerkari bakotxak bere lan saritua irakurri eban.

LIBURU BARRIAK

KOLONBIAR OLERKI-TXORTA EUZKERAZ (Parnaso Colombiano en euzkera). EKIN, Buenos Aires, 1968. 20 x 14 eiña, ta 258 orrialde. Azken urteotako kolonbiar olerkaririk onenen 47 olerki-lan euskeraz jarrita. Itzultzailleak: J. Onaindia, Lin Akesolo, Jon Beistegi, Iñaki Goikoetxea, Sabin Muniategi, A. Onaindia'ren ardurapean. Mafrazkiak: Bilbao'ko ertilari Luzuriaga'k. Bogota'ko Euzko Etxea'k babespean artu ta Abrisketa'tar Pantzeska'k izan dau argitalpenaren ardura berezia.

Beste batzuen artean Kolonbia'ko olerkari onein lanak agertzen dira: Julio Florez, Kornelio Hispano, L. Karlos Lopez Eskauriaza, Rafael Pombo, Jose Asunción Silva, Ismael Enrike Arziniagas eta egunokaz, izparringiak eta irratia diñoenez, Mexiko'ko Olinpiar Jokuetan lenengo Olerki-saria irabazi dauan Oktabio Amortegi. Kolonbia'ko euskotarrak Kolonbia'ri egiñiko biotz-opari samurra dozu. «Laterri ontan bizi dan euzko gizatalde txikiak —diño sarrerako omenaldian— ezin eikieon aurkeztu abegi onez artu ebazan lur txeratsuari, aspaldiko euskal izkera zarrera, euzkerara itzulitako kolonbiar olerkarien bertsoak baiño erakuspen bizi garbiagorik».